



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK ETEN DIGITALA EZABATZEKO NEURRIAK ESKATU DEUTSIEZ ALDUNDIARI

- **Batzarretako taldeek bizkaitar “guztien” ahalduntze teknologikoa bultzatzeko eskatu deutsie Foru Gobernuari.**
- **Oposizinoak errenta-kanpainan aurrez aurreko arretea indartzeko eskatu dau barriro.**
- **Foru Gobernua eusten daben taldeek Bizkaiko Batzar Nagusietan iragarri dabenez, garraio publikoaren etorkizunaren inguruan hausnartzeko azterketa-batzorde bat sortuko da.**

(Gernikan, 2021eko maiatzaren 19an). Bizkaiko Batzar Nagusien osoko bilkurak, Aldundiari “bizkaitar guztien ahalduntze teknologikoa” bultzatzeko eskatzeko erdibideko zuzenketa-eske bat onartu dau gaur Gernikan, ahalik eta herritar gehienek “digitalizazio prozesuan parte hartu deien”. Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia alderdiek adostutako testuaren arabera, “batez be eten digitalaren aurrean ahulenak diran kolektiboak” hartuko ditue kontuan neurri horreek.

Bizkaiko Batzarrek “Gobernu Digital inklusiboa” eratzeko “beharrezko pausuak” emoteko eskatu deutso Foru Gobernuari, Aldundiko beharginen artean “ahalik eta adostasun handiena” garatuz, eta neurri horreek “beste euskal erakunde batzuekaz alkarlanean” ezarteko.

Modu berean, Bizkaiko Legebiltzarrak “lurraldeko GovTech –sektore publikoaren eta startup teknologikoen arteko batasuna– sektoreagaz lotutako enpresen, unibersidadeen, ierketa-zentroen eta teknologien ekosistema baten sorreraren buru izan daitela eskatu deutso Aldundiari, Administrazioaren soluzino eta prozesu guztietan barrikuntzea sustatuz, erakundeko beharginak ahaldunduz, ekimenean funtsezko eragile izateko behar diran baliabideak eta prestakuntzea emonez eta bermatuz, kalidadeko enpleo publikoa sortuz eta sektoreko moeta guztietako enpresakaz, erakunde publikoakaz, esparru akademikoagaz eta ezagutza eta barrikuntza sortzen daben beste erakunde batzuekaz lankidetzera bultzatuz.”

Aho batez onartutako erdibideko zuzenketa-eskeak EH Bildu taldeak Transizinoaren eta Gobernu Digitalaren inguruan proponidu eban mozinoa



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

ordezkatzen dau. Osoko bilkurak erabagitakoaren oso antzekoa zan. Arantza Urkaregiren berbetan, trantsizino horrek “aldaketa handiak” dakar, bai barrura begira, bai kanpora begira. Koalitzino abertzaleko ordezkaria barrikuntza “adostuak” garatzearen alde agertu da, trantsizino digitalaren arriskuak saihesteko, eten digitalaren arazoari jagokezanak, besteak beste. Prozesu “mailakatua” izan behar dau, “inor atzean eta diskriminanta geratu ez daiten”, esan dau Jesus Maria Ortiz sozialistak.

Talde Berezia-PPB izan da ekimenaren alde agertu ez dan talde bakarra. Kontrako botoa emon aurretik, Eduardo Andrade batzarkideak, Aldundiak martxan jarri dauen, pandemiagaz bizkortu dan, eta herritarrak “bertan behera iztea” eta aurrez aurreko zerbitzuak “desegitea” ekarri dauen digitalizazio prozesua kritikau dau. “Nasaitzeko” eta “pausuz pausu” joateko eskatu dau, oraindino Internetarako sarbiderik be ez daukien “milaka persona” dagozalako.

EUKALIPTOA

Mozino baten bidez, pinuaren banda marroiaren gaixotasunaren hedapenari erantzuteko azken urteetan ustiategi partikularrek landatutako eukaliptoaren “2.700 hektareak” kentzea proponidu dau EH Bilduk. Ekimena Elkarrekin Bizkaiak babestu dau, baina Batzarretako ganerako taldeek ez dabe onartu.

Euskadin baso-ereduaren ganeko eztabaida “orokorra” egitearen alde agertu da Talde Berezia-PPB. “Proponiduten dana egiten ari da daborduko”, erantzun dau Jesus Ortiz sozialistak, eta gogorarazo dau Aldundiak azkenengo kontrol saioan erakutsi ebala ez egoala mekanismo juridikorik lurraldearen “% 85ean” pribadua dan baso-azalera batean espezie hori landatzea debeketako. Ganera, Aldundiak daborduko ez ditu diruz laguntzen espezie hori landatuko dan lursailetakoz mozketak, eta baso-azalera autoktonoak hedatzeko laguntzak eskaintzen ditu, “hektareko 3.100 eurorainokoak”, Jesus Lekerikabeaskoa Euzko Abertzaleak taldeko bozeroalearen berbetan. Politika horren ondorioz, Bizkaian ez da “inoiz” egon espezie autoktonoen hainbeste azalera, “kudeaketa jasangarri ziurtatutako 60.000 hektarea”.

ERRENTAREN AITORPENA EGITEKO AURREZ-AURREKO EREDUA

Oposizinoak bat egin dau Foru Aldundiari plantilla “publikoa” indartzeko eskariagaz, bai aurrez aurre, bai telefonoz, errentaren kanpainan zergadunari emoten jakon zerbitzua hobetzeko. Elkarrekin Bizkaiak aurkeztutako eta EH Bilduk eta Talde Berezia-PPBk babestutako mozinoan, aurrez aurreko arretarako aurretiazko hitzorduaren eskaerea “erraztea” eskatzen zan, herritarrengandik “gertu” dagozan bulegoetan “aurrez aurreko laguntza eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

aholkularitza zerbitzua” martxan jarteagaz batera. Eneritz de Madariaga talde moreko bozeroaleak, aurrez aurreko arretaren eskaera sozialaren aurrean Aldundiak erakutsi dauen “erantzun faltea” kritikau dau.

Gobernua eusten daben taldeek bertan behera itzi dabe ekimena, Batzarretan daukien gehiengoari esker (aldeko 18 boto eta kontrako 32). Jose Alberto Alvarez Castejon sozialistak zehaztu dauenez, aurrez aurreko arretea egon badago, “hitzordua eskatuta”, hamar bat foru-bulegoren bidez, baina “iragazkiren bat” jarri daike galdeketaren errazoia ezagutzeko. Garazi Diaz Insausti jeltzaleen ordezkariak txalotu egin dau errentaren ganeko “edozein izapide” telefonoz egitea ahalbidetzen dauen eta “persona askok eskertzen daben” eredu aldaketea, izan be, ez dabe foru bulegoetara joan behar. Horren ostean, aurrez aurreko zerbitzuaren ganeko datuak emon dira. Aurrez aurre “85 persona” artatzen ari dira egunero, “2.557 persona” kanpaina hasi zanetik. Ogasuneko bulegoetan “225” aitorpen egin dira, eta guztira 330.000 aurkeztu dira. Maiatzaren 13rako, “213 milioi euro baino gehiago” itzuli dira eta erantzun bako deien “3.703 kontaktu” egin dira.

GARRAIO PUBLIKOAREN ETORKIZUNAREN GANEKO AZTERKETA-BATZORDEA

Bizkaiko Batzarrek ezetsi egin dabe, halaber, Bizkaiko Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako 2020-2023 Foru Planaren barruan Bizkaiko Garraio Publikoaren 2018-2028 Plan Estrategikoaren ganean EH Bilduk aurkeztutako mozino bat, “ahalik eta eragile gehienakaz (herritarrak, udalak, gizarte-eragileak, enpresa emakidadunak eta garraio publikoaren sektoreko beharginak) parte hartzeko prozesu bat” gauzatzea eskatzen ebana, “gitxienez, horren emaitzak zabaltzea, aztertzea eta jakinarazotea” barru hartuta.

Foru Gobernua babesten daben taldeen erantzuna Bizkaiko Batzar Nagusietan azterketa-batzorde bat sortuko dala esatea izan da, Erregelamenduen 53. artikuluan oinarrituta, botere Legegilea izan daiten, eta ez Exekutiboa, koalizino abertzaleak proponduten eban moduan, eztabaidea “sakontasun handiagoz” batuko dauena, Batzarretako talde, aditu eta eragile sozial guztien parte-hartzeagaz. Eztabaida hori Bizkaiko Mugikortasun Agintaritzan lantalde bat aitaturako plan estrategikoaren inguruan egiten ari dan azterketeagaz batera joango litzateke.

ZERGA-SISTEMAREN ETA EKARPENEN LEGEAREN GANEKO EZTABAIDEA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ganera, koalizino abertzaleak fiskalidatearen ganeko eztabaida “serioa” eskatu dau, ganerako erakundeakaz batera, Nazinoarteko Diru Funtsak egindako zerga-proposamenak “aztertze”, Euskadiko Zerga Koordinazinarako Organuan, eta zergadun “aberatsenei” “aldi baterako ekarpena” ezartea proponidu dau, talde horrek proponidutako “Covid tasearen” antzekoa. Eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Garapen Jasangarriko Helburuakaz lerrokatze oinarriak ezarriko dituan Foru Arauaren Aurreproiektuan sartzeko eskatu dabe, diru-sarrerak handituko dituen neurriak “dagozan behar sozial handiei erantzun egokia emoteko”, proponidu dau Arantza Urkaregik. “Gure proposamena ez da zerga guztiak igotzea, progresibitatea handitzea baino”.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek euren proposamena aurkeztu dabe osoko zuzenketa-eske moduan, baina koalizino abertzaleak ez dau onartu. Bertan, nazinoarteko erakundeen (NDF, ELGA eta EE) proposamenak 2014an eta 2018an onartutako zerga-erreformen azterketan sartzea planteetan eban, eta Aldundia University College London izenekoagaz egiten ari dan lankidetzarako lana amaitzera animetea. Etorkizuneko zerga-sistemaren ganeko eztabaidaren ganean hausnarketa horreek egin ostean, Ainhoa Pielo Muguruza jeltzaleak ohartarazo dau “zergak igoteak ez dauela zertan diru-bilketa handiagoa ekarri behar, zerga-oinarria jaisten bada”.

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak etorkizuneko Ekarpene Legearen negoziazioan izango dauen jarreraren ganean Talde Bereziak aurkeztu dauen mozinoa eztabaidatu dau osoko bilkurak. Hamar urtez luzapenak izan dituan legea “oso garrantzitsua” da, euskal administrazioen artean dirua banatzeko modua ezarten dauelako. Zentzu horretan, Amaya Fernandez talde horretako bozeroaleak koefizienteak aldatzea defendidu dau, Foru Aldundiek eta Udalek baliabide “nahikoak” izan daiezan. Horren arabera, legea Bizkaiaren pisu espezifikora be “egokitu” behar da.

Batzarretako ganerako taldeak ekimenaren kontra agertu dira. Horreetako hiruk zuzenketa aurkeztu deusiez testuari. Euzko abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, euren eskumenen arabera eskura dituen baliabideen banaketa “ekitatiboa” proponidu dabe, eta legea “arrisku partekatuaren eta ahalegin fiskalaren printzipioak errespetatuz” hobetzea. Beste alde batetik, EH Bilduk “egungo desorekak zuzentzea” proponidu dau, “inor kaltetu barik”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA PIDEN A LA DIPUTACIÓN MEDIDAS QUE FAVOREZCAN LA ELIMINACIÓN DE LA BRECHA DIGITAL

- **Los grupos junteros instan al Gobierno foral a favorecer el empoderamiento tecnológico de “todos” los vizcaínos y vizcaínas.**
- **La oposición vuelve a pedir un refuerzo de la atención presencial en la campaña de la Renta.**
- **Los grupos que sustentan al Gobierno foral anuncian la creación de una comisión de estudio en las Juntas Generales de Bizkaia para reflexionar sobre el futuro del transporte público.**

(Gernika, a 19 de mayo de 2021). El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia, celebrado hoy en Gernika, ha aprobado una enmienda transaccional en la que se insta a la Diputación a favorecer el “empoderamiento tecnológico de todos los vizcaínos y vizcaínas” para que el mayor número de ciudadanos y ciudadanas “sean partícipes del proceso de digitalización”. Estas medidas tendrán en cuenta “preferentemente a aquellos colectivos más vulnerables a la llamada brecha digital”, según el texto acordado por Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia.

La Cámara vizcaína ha pedido al Gobierno foral que dé los “pasos necesarios” para la constitución de un “Gobierno Digital Inclusivo”, desarrollando “el mayor consenso posible” entre el personal de la Diputación, y que implemente dichas medidas “en colaboración con otras instituciones vascas”.

Asimismo, el Parlamento de Bizkaia insta también a la Diputación a que “lidere la creación de un ecosistema de empresas, universidades, centros de investigación y tecnologías asociadas al sector GovTech del territorio –unión entre el sector público y startups tecnológicas-, fomentando la innovación en el conjunto de soluciones y procesos de la Administración, empoderando a las personas trabajadoras de la organización, proporcionando y garantizando los recursos y formación necesarias para ser actores clave en la iniciativa, creando empleo público de calidad y fomentando la colaboración con todo tipo de empresas del sector, organismos públicos, con el ámbito académico y con otros organismos generadores de conocimiento e innovación.”

La enmienda transaccional aprobada por unanimidad sustituye a una moción que había planteado el grupo EH Bildu sobre Transición y Gobierno Digital muy



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

parecida a la acordada por el pleno, una transición que implica “grandes cambios” tanto a nivel interno como externo, a juicio de Arantza Urkaregi. La representante de la coalición abertzale ha abogado por desarrollar innovaciones “consensuadas” para evitar los riesgos de la transición digital, entre ellas, las referidas al problema de la brecha digital. Debe ser un proceso “gradual” para que “nadie se quede atrás y quede discriminado”, ha coincidido el socialista Jesús María Ortiz.

El grupo Mixto-PPB ha sido el único que no ha apoyado la iniciativa. Antes de votar en contra, su apoderado Eduardo Andrade ha criticado el proceso de digitalización, acelerado con la pandemia, que ha puesto en marcha la Diputación, y que ha supuesto “abandonar” a los ciudadanos, y “desmantelar” los servicios presenciales. Ha pedido “relajación” e ir “paso a paso”, ya que todavía hay “miles de personas” que ni siquiera tienen acceso a internet.

EUCALIPTO

A través de una moción, EH Bildu ha planteado que se eliminaran las “2.700 hectáreas” de eucalipto plantadas en los últimos años por explotaciones particulares en respuesta a la extensión de la enfermedad de la banda marrón del pino. La iniciativa ha sido apoyada por Elkarrekin Bizkaia y rechazada por el resto de grupos de la Cámara.

El grupo Mixto-PPB ha abogado por un debate “general” en el País Vasco sobre el modelo forestal. “Se está haciendo ya lo que se propone”, ha respondido el socialista Jesús Ortiz, quien ha recordado que la Diputación ya mostró en el último pleno de control la inexistencia de mecanismos jurídicos para prohibir la plantación de esta especie en una superficie forestal que es privada en el “85%” del territorio. Además, la Diputación no subvenciona ya las talas en terrenos donde se vaya a plantar esta especie y ofrece ayudas para la extensión de superficies forestales autóctonas, que son “de hasta 3.100 euros por hectárea” según el portavoz del grupo juntero Nacionalistas Vascos, Jesús Lekerikabeaskoa. La consecuencia de esta política es que “nunca” ha habido en Bizkaia tanta superficie con especies autóctonas, “60.000 hectáreas de gestión sostenible certificada”.

MODELO PRESENCIAL PARA HACER LA RENTA

La oposición ha unido sus votos para pedir a la Diputación que se refuerce la plantilla “pública” tanto de forma presencial como telefónica para mejorar el servicio al contribuyente en la campaña de la Renta. En la moción planteada por Elkarrekin Bizkaia, y apoyada por EH Bildu y el grupo Mixto-PPB, se pedía



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

que se “facilitara” la solicitud de cita previa para atención presencial, al tiempo de poner en marcha en oficinas “cercanas” a la ciudadanía “un servicio de apoyo y asesoramiento presencial”. La portavoz del grupo morado Eneritz de Madariaga ha criticado la “falta de respuesta” de la Diputación ante la demanda social de atención presencial.

Los grupos junteros que sustentan al Gobierno han tumbado la iniciativa gracias a su mayoría en la Cámara (18 votos a favor y 32 en contra). El socialista José Alberto Álvarez Castejón ha matizado que existe atención presencial “con cita previa” a través de una decena de oficinas forales, si bien se puede establecer “algún filtro” para conocer el motivo de la consulta. Desde las filas jeltzales, Garazi Díaz Insausti, ha aplaudido el cambio de modelo que permite hacer “cualquier trámite” de la Renta por teléfono, “lo que agradecen muchas personas” al no tener que acudir físicamente a las dependencias forales, para pasar a continuación a dar los datos que sobre el servicio presencial. Se están atendiendo a “85 personas cada día” de forma presencial, “2.557 personas” desde que se inició la campaña. En las oficinas de Hacienda se han elaborado “225” declaraciones, de un total de 330.000 presentadas. Y, a fecha de 13 de mayo, se han devuelto “más de 213 millones de euros” y se han hecho ya “3.703 contactos” con las llamadas no atendidas.

COMISIÓN DE ESTUDIO SOBRE EL FUTURO DEL TRANSPORTE PÚBLICO

La Cámara vizcaína ha desestimado también una moción de EH Bildu que pedía llevar a cabo, dentro del Plan Foral de Participación Ciudadana y Social de Bizkaia 2020-2023, “un proceso participativo, con el mayor número posible de agentes (ciudadanía, ayuntamientos, agentes sociales, empresas concesionarias y trabajadores del sector del transporte público)” sobre el Plan Estratégico del Transporte Público de Bizkaia 2018-2028, que incluya “al menos el despliegue, análisis y comunicación de resultados del mismo.”

La respuesta de los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral ha sido el anuncio de creación de una comisión de estudio en las Juntas Generales de Bizkaia, en base al artículo 53 del Reglamento, para que sea el poder Legislativo, y no el Ejecutivo como planteaba la coalición abertzale, el que concentre el debate “con mayor profundidad” y con la participación de grupos junteros, expertos y de “todos” los agentes sociales. Dicho debate iría en paralelo al análisis que un grupo de trabajo está desarrollando en la Autoridad de Movilidad de Bizkaia sobre el citado plan estratégico.

DEBATE SOBRE FISCALIDAD Y LEY DE APORTACIONES



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Asimismo, la coalición abertzale ha pedido un debate “serio” sobre fiscalidad que “analice”, junto con el resto de instituciones, en el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi, las propuestas tributarias formuladas por el Fondo Monetario Internacional, que ha planteado que se imponga una “contribución temporal” para los contribuyentes “más ricos”, en parecidos términos a la “tasa covid” planteada por este grupo. Y han pedido que se incluya en el Anteproyecto de Norma Foral que establezca las bases para la alineación del Sistema Tributario del Territorio Histórico de Bizkaia con los Objetivos de Desarrollo Sostenible, medidas que incrementen los ingresos “para dar respuesta adecuada a las grandes necesidades sociales existentes”, ha planteado Arantza Urkaregi. “Nuestra propuesta no es subir todos los impuestos, sino aumentar la progresividad”.

Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han presentado su propia propuesta en forma de enmienda a la totalidad, que no ha sido aceptada por la coalición abertzale. En ella planteaban incorporar las propuestas de los organismos internacionales (FMI, OCDE y CE) al análisis de las reformas fiscales aprobadas en 2014 y 2018, y a animar a la Diputación a concluir el trabajo de colaboración que está desarrollando con el University College London. Tras plantear estas reflexiones al debate sobre la fiscalidad del futuro, la jeltzale Ainhoa Pieló Muguruza ha advertido de que “una subida de impuestos no tiene porqué llevar aparejado una mayor recaudación si la base imponible baja”.

Por último, el pleno ha concluido con el debate de una moción del grupo Mixto-PPB sobre la postura de la Diputación vizcaína en la negociación de la futura Ley de Aportaciones. Prorrogada durante diez años, esta ley es “muy importante” ya que configura el reparto del dinero entre las administraciones vascas. En este sentido, la portavoz de este grupo Amaya Fernández ha defendido la modificación de los coeficientes de tal forma que las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos dispongan de los recursos “suficientes”. Según ella, la ley debe “adecuarse” también al peso específico de Bizkaia.

La iniciativa ha sido rechazada por el resto de grupos de la Cámara. Tres de ellos han presentado enmiendas al texto. Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han planteado un reparto “equitativo” de los recursos disponibles en función de sus competencias y una mejora de la ley “respetando los principios de riesgo compartido y esfuerzo fiscal”, un planteamiento que los populares han tachado de “muy voluntarista y abstracto”. Por su parte, EH Bildu ha planteado a través de otra enmienda “corregir los actuales desequilibrios” sin que “nadie se vea perjudicado”.